



BULLAIN LÓPEZ, Iñigo

Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena z.g.
48940 Leioa
dapbuloi@lg.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2004), 13; 19-24]

Sarrera eguna: 2004.07.05
Onarpen eguna: 2005.01.25

Regioak eta Herriak Europarako Konstituzioan

(Regions and People in the Constitution for Europe)

Europarako Konstituzioan, regio eta herriei buruzko aipamenak ez dira ugari. Nolanahi ere, zenbait artikuluk Regioetako Komitearen eskumenak ezartzen dituzte. Xedapen horien edukia eta, honen harira, gogoeta batzuk eskaini nahi dizkio egileak irakurleari.

Giltza hitzak: Europear Konstituzioa. Regioen Komitea.

El Constitución para Europa apenas hace alusión alguna a los pueblos y regiones, pero cuenta con unos pocos artículos sobre las competencias del Comité de las Regiones. En el presente trabajo presentaremos al lector el contenido de dichas disposiciones y algunas reflexiones al hilo de las mismas.

Palabras Clave: Constitución Europea. Comité de las Regiones.

El Constitution pour l'Europe fait à peine allusion aux peuples et aux régions, mais compte à peine quelques articles sur les compétences du Comité des Régions. Dans ce travail, nous présenterons au lecteur le contenu de ces dispositions et quelques réflexions s'y référant.

Mots Clés: Constitution Européenne. Comité des Régions.



1. Atarikoa¹

Konbentzio europearrak landutako textuan eta Estatu eta gobernu buruek aldaketa zenbaitez onarturik², alegia, Europarako Konstituzio delakotan, aipu batzuk egiten dira herri eta regioei buruz. Datozen lerroetan, aipamen horien harira, batik bat Regioetako Komiteaz (RK) arduratuko gara, orobat, auzi honi loturiko beste zenbaitez, ezen irakurleari gogoetarazi nahi genioke –gure ustez eta testuinguru honetan– datorren europar Konstituzioak dakarren eredu juridiko-politikoaz.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, Konstituzioak berak dioenez³, Hiritarrak eta Estatuak direla hainak zeinen izenean Konbentzioaren partaideek Konstituzioa egin duten. Eta agian, ez legoke soberan orotaraztea ere, zein erakunde izan duten representaririk Konbentziokide. Hauxek, hain zuzen ere: Europar Batzordea, Kontseiluaren Lehendakaritza eta europar Parlamenta; baita Estatukideen eta orduko Estatukidegaien gobernu eta parlament nazionalak ere. Beraz, ehun bat lagun horietaz aparte, eta soilik behatzaile gisa, erran nahi baita, konstituziogile representaziorik gabe, Europar Batasuneko Regioetako Komitearen izenean, beste sei lagun Konbentziara bildu ziren. Beraz, regioen aldetik partehartze periferiko horren ondorioz, ez da harrigarri izan behar Konbentzioko Regioetako Komitearen eskumenak, gehienbat, bere horretan utzi izana, guti gora behera, Maastricht-eko Tratatuak, aurreko hamarkadan, ezarri zuenaren arabera⁴. Halaber, Konstituzio berriak, lehen bezala, ez du Regioetako Komiteari dagozkion eskumenen zerrendarik ekarri. Dagozkion eskumenak barreiaturik daude Konstituzioaren III. zatiko hainbat artikulutan⁵.

Bestetik, geroxeago ikus genezakeenez, europar integrazio prozesuan Europako herriei dagokien rolari buruz, Konstituzioan jasotzen diren aipuak, regioei zaienez bezainbatean, urri

eta bakanak dira, ezen azken berrogeita hamar urteotan ezagutu izan dugun integrazio prozesuak ukan badu ardatz eta habe Estatuetan, eta ez herri edo nazioetan. Oraingoz, Estatuazpiko egiturak, hala nola, regioak, Estatukide bakoitzaren araberrako araudietara daude. Batasunak, soilik duela dozena bat urtetik hona, eta batik bat Merkatu Batuaren eragina hobetzeko asmoz, regioen representarientzako txokotxo bat egin du eraturiko Regioetako Komitean.

Ez dezagun ahantz ezen hamar Estatukide berrien artean regioek apenas dutela aitorpen instituzionalik; batetik, Estatukide batzuk lar txikiegi direlako; bestetik, alderdi komunistaren lako sisteman zentralizazioa ezaugarri nagusienetako bat zelako... Beraz, haizu eta zilegi da aurreikustea, epe ertainera begira, Regioetako Komitean regioen representazioak pisua galduko duela, eta, oraindano, delako Regioetako Komitean regioen representariak ez zirenek (hala nola, hiri, county, probintzi, bezirk eta beste) nagusitasuna eskuratu izan badute, hurbileko geroan are gehiago izango dutela. Ezen gauza jakina baita gaurkoz Estatukide gehienek ez dutela beren barne egituratan regiorik ezagutzen edota ez dietela lege lako araurik egiten uzten. Hortakotz, erran dezakegu ezen regio autonomoen representaziorik gabetasuna, berriki hedaturiko Europar Batasunean gutxitu egin dela eta litekeena dela, arestian genioenez, Konbentzioko Konstituzioa idaztean –non Estatukide berrien representariak ere partaide izan diren– zokoratze horrek jada isla ukan izana.

2. Regioetako Komitea

Laurogeiko hamarkadan eta XVI. Zuzendaritza Orokorren baitan, hots, Europar Batzordeko Regio Politika izeneko D.G. apailatu berrian, zein lehenbiziz eta urte luzez Eneko Landaburuk zuzendu baitzuen, Egituratze Fondoak ekarpen berria zirelarik, Europar Ekonomia Erkidegoa (EEE) izaniko garaian (Delorsen agintepean) eta Merkatu Batuari eraginkortasun handiago emateko xedez, batzorde bat eratu zuten, non europar Batzordeak Estatukideen regioetako administrazioei partaide izateko gonbita luzatu zien, anartean, lehen urratsetan zebilen Regio Politika

1. “Erregio” edo “eskualde” hitzen ordez, “regio” terminoa hobesten dut, ezen honek hitz latinoaren erroa hobeki mantentzen baitu, ingeleseraz eta frantseseraz adierazten denez, alegia, “region” eta “région”, hurrenez hurren. Bestetik, eskualde hitzaren esanahia nahasi samarra da, “comarca” edo “zona” zentzuan ere erabiltzen baita. “Erregio” hitzari zaionez, hepetetikoa, “err” modismoari vulgarismoa deritzot. Artikuluko beste zenbait terminoren erabilpenaren inguruan zehaztasun batzuk: a) “ordezkari” hitzaren ordez egokiagoa dut “representari”, ezen ordezkari “sustituto” litzateke, eta ez “representante”; b) “batzorde” hitza erabiliko da “comisión” adierazteko, eta “komitea” mantenduko dugu ingeleseraz eta frantseseraz darabilzaten esanahiarekin, “Committee” eta “Comité”, hurrenez hurren.
2. Tratatuaren proiektua onartu zuten, hurrenez hurren, Konbentzioko 2003ko uztailaren 18an eta Estatu eta Gobernu buruek 2004ko ekainaren 18an. Artikulu honetan Estatukideetako Gobernuen Representarien Konferentziak onarturiko testua erabiliko da. Ezaguna denez, azken honek aldatu du Konbentzioko ezarri zuen numerazioa. Konferentziak zenbait Adierazpen onartu zuen Azken Aktari erantsirik. Konstituzioaren xedapenei buruzko 30.ean bi urteko epea aurreikusten da Estatukideek Konstituzioa berrets dezaten.
3. Vid. Itunaren I. eta II. Zatiatarako Aitzinsolasak.
4. Hala eta guztiz ere, Amsterdamgo Tratatuak aldaketa txiki batzuk ekarri zituen Regioetako Komitea arautzen zuten 263, 264 eta 265 artikuluetara (lehengo 198A, 198B eta 198C artikulua).
5. Konstituzioaren III. Zatia (Batasunaren Politikez eta Funtzionamenduaz) testuaren zatirik luzeena da, eta III-115 eta III-436 artikuluen artean luzatzen da. Guztira, Konstituzioaren alderdi artikulatua 448 artikuluz osatzen da.

hobekien kudeatzeko asmoz. Ordurako, jada hiru dekada joanak ziren EEE eratu zutenetik; beraz, urteak behar izan zituen Erkidegoak lehenbizikotz, eta egitura apalean bazen ere, Estatukideen administrazio zentralak ez ziren beste lurraldeetako representazioekin harremanak egituratzeko. Dena dela, laurogeita hamarrekoko dekada arte, alegia, Batasunaren Trataturia heldu zen arte, Trataturiek ez zuten regioekiko inongo araurik jaso. Maastricht-ek, aurrenekoz, regio zein beste lurraldeetako administrazio representarietara lekua egin zien Trataturiak horrexetarako eraturiko erakunde batean, zeini Regioetako Komitea (aurrerantzean RK) deitu zion.

RK apailatzerakoan, eredu hartu zuten Gizarte eta Ekonomia Komitea; izan ere, Regioetako Komitean kide-kopurua osatzeko, lehenagotik Gizarte eta Ekonomia Komitean (aurrerantzean GEK) Estatukideen artean zegoen representaritzak banaketa bera egin zuten, hots, kontuan hartu gabe Estatukide batzuek regioak instituzionalizaturik zituztela, besteak beste Alemania, Belgika, Espainia, Italia..., eta beste batzuek, aldiz, regionik ez zutelako. RKren kideak Kontseiluak izendatu zituen Estatukide bakoitzaren proposamenez. RKri egokitu zituen aholkuak emateko aukera, Ministro Kontseiluak edo Batzordeak eskatuta eta Trataturian aurreikusitako zenbait gaiez: Hezkuntza, Kultura, Osasun Publikoa, Europaz harandikoko sareak eta Egituratzeko Fondoak. RKri ahalbideratzen zitzaion ere, bidezko iritzia ziezaiotzean, Ministro Kontseiluari edo europar Batzordeari RKren irizpena bere ekimenez emateko.

Zenbait urteren buruan, Amsterdamgo Trataturiak, neurri txikian, handitu zituen RKren eskumenak, alegia, RKri ahalbideratu zitzaion bere barneko araudia egitea; halaber, gehitu zitzaion mugaz harandikoko lankidetzari dagozkion gaietan iritzia emateko eskubidea; eta baita Europar Parlamentak, nahi izanez gero, RKri aholkua eska ziezaiokelako aukera ere.

Aitzitik, oraingoan Konbentzioak ez du apenas ezer aldatu. Lehen bezala, hiru baino ez dira RKri berari Konstituzioan zuzenduriko artikulua⁶. Halaber, regioei buruz zuzenki eginiko aipua oso guti dira⁷, izan ere, Konstituzioan regioekin zerikusia duen gehien-gehiena RKri loturik dago. Horiek horrela, Europar Konstituzioaren (EK) III-386 artikuluan, RKren ezaugarri nagusi zenbait xedatzen dira, hala nola kideen kopurua, zeinak gehienez 350 izango diren, bost urtez izendatuak eta berriztagarriak. Bestaldetik, eta lehen bezala, Ministro

Kontseiluak, Estatukide bakoitzaren proposamen araberak, eta europar erabakiaren bidez, kideen zerranda onartuko du. Amsterdamentik ezarritako debekua ere mantentzen da; alegia, aldi berean RKren kide eta Europar Parlamentaren kide izatea bateraezina dela.

Bestetik, III-387 artikuluan RKri bere barneko araudia egiteko eskubidea berresten zaio, hau ere Amsterdamentik onetsita. III-388 artikulua, EBko 265. artikulua bera da, lehenagoko 198C artikulua, alegia. Horretan, Amsterdameko reforma kontuan harturik, xedatzen da ezen RK kontsultatuko dutela Europar Parlamentak, Batzordeak eta Ministro Kontseiluak Konstituzioan aurreikusitako kasuetan eta beste zeinahi guztietan ere, bereziki mugaz harandikoko lankidetzari eragin diezaiotzean, betiere aipaturiko instituzioetako batek kontsulta egoki jotzen badu. Artikuluan, gutxieneko hilabete epea jar diezaiokete RKri bere irizpidea eman dezan; epea igarota irizpidea alboratu lezakete.

Alabaina, RKrekiko kontsultaz Konstituzioak ez du inon aipatzen –EBko Trataturiak Gizarte eta Ekonomia Komitearekiko egiten duen bezala⁸– aholku eskatze hori nahitaezkoa denik Konstituzioak berak aurreikusitako kasuetarako. Azpimarratzekoa da, hala ere, Gobernuen arteko Konferentziak berriki ezabatu egin duela Konbentzioak GEKra mantentzen zuten aholkua eskatzearen nahitaezotasuna.

Dena dela, badateke garaia ezagutzeko zeintzuk diren Konstituzioan aurreikusitako kasuak non RK kontsultatu behar den. Arestian esan dugunez, Konstituzioak ez dakar horretarako zerrendarik, RKri dagozkion gaiak barreiaturik daude testuan gaindi, III. Zatian zehar, gehienak III. Kapituluaren bilduak (beste eremu espezifikoaren politikak izenekoan). Hauexek dira:

– **Enplegua** (III-206 art.). Enplegu arloan, Ministro Kontseiluak (MK) urtero orientabideak hartuko ditu Europar Parlamentari (EP), Regioetako Komiteari, Gizarte eta Ekonomia Komiteari (GEK) eta Enplegu Komiteari kontsultatu ondoren.

– **Gizarte Politika** (III-210.2 eta 3 art.). Europar legeak edo europar lege markoak hartuko dira RKri, GEKi –eta, zenbait kasutan, EPri ere– aholkua eskatu ondoren. Haatik, betiere Gizarte Politikaz, gizon eta emakumezkoen arteko berdintasunaz ari denean, lan munduan europar legeak edo europar lege markoak hartzeko proze-

6. Artikulua hauexek dira: III-386; III-387 eta III-388, zeinak kokaturik baitaude Konstituzioaren III. Zatian (Batasunaren Politikez eta Funtzionamenduaz), VI. Tituluaren (Batasunaren Funtzionamenduaz), I. Kapituluaren (Instituzioei buruzko Xedapenak), 2. Atalean (Batasunaren Organo aholku-emaileak), 1. Azpiatalean (Regioetako Komitea).

7. Esate baterako, 5. artikulua, non aipatzen baita ezen Batasunak Estatukideen izaera nazionala errespetatuko duela, baita tokian tokiko eta regioen autonomia ere. Antzeko terminoetan azaltzen da Konstituzioa II. Zatiaren Hitzaurrean.

8. Vid. III-392 artikulua, non Gizarte eta Ekonomia Komitearen (GEK) kontsultaz arautzen den.

duran aurreikusten da GEKren aurretiko kontsulta, baina ez ordea, RKrena.

- **Europear Gizarte Fondoa** (III-219 art.). Europear Gizarte Fondoa ezartzeko dagozkion neurriak europar legeen bidez hartuko dira RK eta GEK kontsultatu ondoren.
- **Ekonomia, Gizarte eta Lurralde Kohesioa** (III-221, III-223 eta III-224 art.). Fondoan gaineko erabakiak hartzeko prozedura gehienetan RKri aholkua eskatzea aurreikusten da, hala nola, Kohesio Fondoari dagokion europear legegari buruz (III-223), edo Regioen Garapenerako Europear Fondoari dagokionez (III-224 art.), edo Europar Gizarte Fondoaz den bezainbatean. Ez, ordea, Lurlangintza Orientabide eta Berme Europar Fondoari (LOBEF) dagokionez⁹. Izan ere, RKren parte hartzea ez da aurreikusten Lurlangintza eta Arrantza eremu osoan; bai, aldiz, GEKrena.
- **Ingurumena** (III-234 art.). Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko hartu beharreko egintzak europar legeen edo europar lege markoen bidez hartuko dira RK eta GEK kontsultatu ondoren. RKren aholkua jasotzekoa izanen da ekintza programei dagokionez. Halere, RKren partaidetza baztertzeko da Kontsumitzaileen Babesari dagokionez¹⁰.
- **Transportea** (III-236 eta III-245 art.). Europear Batasuneko transporte politikaren araudia, trenbide, errepede eta nabigaziobidez osaturik dago. Horren gaineko europar lege eta lege markoak hartuko dira RKri kontsultatu ondoren. Hala eta guztiz ere, III-245 artikuluan aurreikusten da itsas eta aire nabigaziorako lege eta lege marko europearrak ezar daitezkeela. Horietan ere RKren kontsulta aurreikusita dago.
- **Europaz haraindiko sareak** (III-246 eta III-247 art.). Barneko mugarik gabeko merkatuak dakarren onuran partaide izan daitezkeen bai ekonomia eragile, baita regio eta hiri erakunde ere, Batasunak European zeharkako sareak sustatu eta garatuko ditu garraio, telekomunikazio eta energia azpiegituretan. Beronetazko orientabide eta gainerako neurriak hartuak izanen dira RK eta GEKen aurreiazko kontsultarekin.

- **Energia** (III-256). Beharrezko neurriak –xedeak erdiesteko– Batasuneko energia politikari zaionaz bezainbatean hartuko dira lege eta lege marko europarren bidez, eta aurretik RK eta GEK kontsultatuak izanen dira. Ordea, RKren parte hartzeaz ezer ez da esaten Ikerkuntza, Garapen Teknologiko eta Espazioari buruzko alorretarako¹¹.

Gai horiez gain, Konstituzioaren III. Zatiaren V. Kapituluaren¹² beste zenbait gaiez aurreikusten da Regioetako Komitearen parte hartzea, zeinetan Batasunaren egintza Estatukide direnen eskumen eremuetan onartzen baita, baldin eta egintza horiek mugatzen badira Estatukideen politikak koordinatzera, osatzera edo laguntzera. Hauek dira:

- **Osasun Publikoa** (III-278 art.). Batasunaren eskumena, osasun politikari dagokionez, aurreiazko izaeraduna da, hala nola, gizakiaren eritasunak ekiditeko kanpainak bultzatzea, edo osasun heziketa eta ikerkuntza sustatzea. Xede horiek erdiesteko, europar legeak eta europar lege markoak hartuko dira RK eta GEK kontsultatu eta gero.
- **Kultura** (III-280 art.). Kultura arloan Batasunak sustapen neurriak hartuko ditu Estatukideen egintza lagundu eta osatzeko, europar lege eta lege marko bidez. RKren parte hartzea aurreikusita dago; ez, ordea, GEKrena¹³.
- **Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Gazteria eta Kirola** (III-282 eta III-283). Eremu hauetan ere RKren parte hartzea aurreikusten da sustapen neurriak europar lege edo europar lege marko bidez ezar daitezenerako.

Halaber, III-388. artikuluan xedatzen denez, Parlamentak, Batzordeak edo Ministro Kontseiluak, Konstituzioak aurreikusitako kasuez gain, beste edozeinetan ere, egoki jo balezate, EBA kontsultatuko dute, bereziki **mugaz haraindiko lankidetzari** eragin diezaioketenak. Hortaz, geroari begira, mugaz haraindiko lankidetzarekin zerikusia ukan dezaketen aferak bide bat izan daitezke RKren eskumenak zabaltzeko, ezen mugaz haraindiko lankidetzak delakoak beste konstituzio sistemetan eskuduntza horizontalaren antz handia baitu.

9. LOBEF delako Fondoari dagokionez, III-224 artikulua III-231 eta III-219.3 artikuluetan ezarritako prozedurara igortzen du, eta horretan GEKen partaidetza aurreikusten bada ere, RKrena, ordea, ez.

10. Vid. III-235 art. non, ordea, GEKen parte hartzea aurreikusita dagoen.

11. Bai, aldiz, GEKen kontsultaz. Vid., esate baterako, III-251.1 art.

12. V. Kapituluaren izenburua hauexek izanik: Eremuak non Batasunak erabaki dezakeen koordinazio, osagarri edo laguntza egintza bat burutzea.

13. Aldiz, Industria politikarako GEKen kontsulta aurreikusten da, eta ez, ordea, RKrena. Vid. Industria Politika xedatzeko III-279 artikuluan araututakoa.

Halere, RKren alegiazko hedapen indarra-
ren alboan, azpimarratzekoa da Europar
Konstituzioak zenbait esparruetarako erabat isildu
duela Regioetako Komitearen parte hartzea.
Adibidez, Barne Merkatua edo Ekonomia eta
Moneta Politikarako. RKren partehartzea ez da
ere aintzat hartzen Libertate, Segurtasun eta
Justizia Espaziorako¹⁴. Bestaldetik, Europarako
Konstituzionean lankidetzaren berrindartua arautzen
bada ere, aurreikusita dago soilik Estatukide zen-
baiten artean, eta ez dago regioentzat irekita¹⁵.

Bestaldetik, Regioetako Komitearen eraen-
tza linguistikoa dagokionez, III-128 artikulua IV-
448 artikulura igortzen du I-31 artikulua
aipamenaren bitartez, non RK eta GEK baitira isil-
bidezko organo aholku-emaileak. Horrek esan
nahi du IV-448 artikulua zerrendan izan behar-
ko litzatekeela hizkuntza jakin bat, RKren tratue-
tan hizkuntza hori erabilgarria izan dadin¹⁶. Hala
ere, III-433. artikuluan aurreikusten da ezen
Ministro Kontseiluak ahozko araudi europarra
hartuko duela, zeinen bidez Batasuneko instituzio-
en eraentza linguistikoa finkatuko baita. Honez
gain, Gobernuen arteko Konferentziak bigarren
paragrafo bat gehitu dio IV-448 artikuluari, non
xedatzen baita Tratatuaren beste hizkuntzetara itzul
daitekeela, baldin eta Estatukide baten
Konstituzio-ordenamenduaren arabera hizkuntza
horrek edo horiek onarpen ofiziala badute
Estatukidearen lurralde osoan edo zati batean.
Estatukideak itzulpen kopia ziurtatua bidaliko du,
Kontseiluaren artxiboetan gordetzeko.

Dena dela, RKri dagokionez diratekeen
nobedaderik interesgarrienetarikoa
Konstituzioaren IV. Zatian daude, alegia, subsidia-
ritatearen eta proportzionaltasunaren printzipioen
aplikazioaren gaineko protokoloan¹⁷. Protokolo
honetan, RKren aspaldiko eskakizun zena, hots,
Regioetako Komitearen gaikuntza Luxenburgeko
Justizia Auzitegiaren aurrean, onartu egin da.
Protokoloaren 8. artikuluan RKri habilitazioa aitort-
zen zaio helegiteak jartzeko Batasuneko egintza
legislatiboetarako dagokienez, betiere Konstituzioak
RKren kontsulta aurreikusia balu. Bestaldetik, pro-
tokolo beraren 9. artikulua RK hartzen du barne,
gainerako instituzioekin, europar Batzordeak
Konstituzioaren artikulua I-11ren aplikazioa dela-
eta urtero aurkeztu beharko duen txostenari dago-
kionez, non Batasunaren oinarriko printzipioen
artearen subsidiaritatearena baitago¹⁸. Orobat, pro-
tokoloaren 5. artikuluan begiesten da ezen neur-

tzekoa dela Batasunaren legeriak Regioetan ekar-
litzakeen ondorio finantzier eta legislatiboak,
horretarako Europar Batzordeak zein ere legisla-
zio proposamenetarako ebaluatu beharko baitu
subsidiaritate eta proportzionaltasun printzipioen
betearazpena.

3. Herriez

Arestian genioenez, Konstituzioa gehien-
bat arduratzen da regioez, haiek Regioetako
Komitearekin loturak izan ditzaketan ber. Herriez
ere Konstituzioak oso aipamen bakanak egiten
ditu. Alabaina, Europarako Konstituzioan
Estatuek anitz dira aipu eta aipamenak, ezen
Estatuak baitira European lehen lerroko protago-
nistak eta ez, ordea, Herriak. Jokaera diferent
eta ezberdin hau –zeinek nabarmenki herriez
edo nazioez aipurik egin nahi ez duen– ulerga-
rriago egin dakiguke kontuan har bageneza
Europako XX. mendeko lehenengo erdian bi
gerrate ikaragarri pairatu behar izanak zerikusi
zuzena izan zuela herrien eta nazioen izenean
egindako asaldurekin. Das Volk eta
Deutschland, edo il popolo eta L'Italia-ren izene-
an –adibide gehiagorik ez aipatzearen–,
European gaindi herri eta nazio izenean popula-
zioa erotzen saiatu ziren botere totalitario zen-
bait, eta milioika lagun heriotza burutu zen
Europa osoan. Ez da beraz harrigarri mendearen
bigarren erdian, Europako osatze prozesua mar-
txan jartzen dutenean, herri eta nazioez aipame-
nak baztertu nahi izana, eta, ordea, Estatu eta
hiritartasunaren moldeak lehenestea –urte luzez
europar hiritartasuna nahiko zokoraturik izan
bada ere–. Estatutasunak halako laikotasuna
eman diezaioke politikari, nazioak ekar –die-
zaioketena, zeren, Europako historiak agerian
uzten duenez, nazioa bihurtu izan zuten –eta
bada orain ere hainbat lekutan– sineskeriaren
bilgune, nolabait, erlijioa ordezkatzeko fede
berria baillitza, horren izenean egundoko basa-
keriak egin ahal eta estaltzeko asmoz. Ez dut
honekin esan nahi egun European nazionalismo-
rik ez denik, Europatik desagertu denik, baina
bai alboratu egin dutela integrazio prozesuan
aintzintzeko. Honen lekuko dira Itunak edo
Tratatuak, zeinek apenas dituzte herri edo nazio
hitzak erabiltzen.

Horrenbestez, soilik Konstituzioaren solas-
aitzinetan aurki daitezke herri eta nazio aipame-

14. Barne Merkatuari dagokionez, Konstituzioak Gizarte eta Ekonomiaren Komitearen kontsulta aurreikusten du. Ekonomia eta Politika Politikarako era-
kunde aholkularia Europar Banku Zentrala izanen da. Libertate, Segurtasun eta Justizia Espaziorako, ordea, Konstituzioak Europar Parlamentaren eta
parlament nazionalen parte hartzea aurreikusten du.
15. Lankidetzaren berrindartuz, vid. EKren III. Zati VI. Tituluko III. Kapituluak, preseski III-416tik III-423ra.
16. Oraingoz, IV-448 artikulua zerrendan, gaeliko irlandarra ez ezik, orotara 21 hizkuntza daude.
17. Delako IV. Zatian, zeinen izenburua Xedapen orokorrak eta Azken xedapenak baiten, bost protokolo eta hiru adierazpen biltzen dira, Konstituzioari
atxikiak.
18. Delako I-11 artikulua berak subsidiaritatearen eta proportzionaltasunaren printzipioen aplikazioaren gaineko protokoloa aipatzen du, eta printzipioaren
aplikaziorako protokoloan jasotako arauetara igortzen du.

nak, bai Konstituzio osoaren hitzaurrean, baita II. Zatiako hitzaurrean ere¹⁹. Hitzaurretatik aparte, herriak eta nazioak kasik desagertu egin dira testutik. Estatuez gain, Konstituziorako subjektu politiko hiritarrak dira. Ikusi besterik ez dago, esate baterako, Lehen Zatiaren VI. Titulua (Batasunaren bizitza demokratikoaz izeneko), non herria edo herriak ez den edo ez diren aipatu ere, bai ordea hiritarrak. Horrela, III. Zatiaren VI. Tituluan ere, Europar Parlamentaren funtzionamenduari dagozkioneko arauetan, hiritarrak aipatzen dira, eta ez herriak edo nazioak. Hala ere, Konstituzioaren 5. artikuluan xedatzen da Batasunak Estaturikideen nazio-identitatea respetatuko duela, baita autonomia lokala eta regionalari zaionez ere. Esan dezakegu ezen XX. mendearen bigarren erditik hona nazionalismoak bere burua sarritan Estatu gisa mozorrotu behar izan duela politika egiteko, gero eta zailago egin baitzaio gordinen nazionalismo gisa beste Estaturikideen aurrean agertzea²⁰. Egun Europako Batasunean nazionalismoaren izenean politika egin nahi dutenak eskuinburuan kokatzen dira, direla Front National, Vlaams Block, Austriako Alderdi Liberala edo berriki UKIP izenekoak... Jakina, Estatu nazionalen bere nazionalismoa ezkutatzetik ez dutenek, zailtasunak izaten eta izanen dituzte Europan onartuak izateko, ezen Europak nazionalismoaz nahiko eta aski izan zuen, eta ez du, ene aburuz, nazionalismoaz gehiegi eta gehiago entzun nahi.

Europako integratze prozesuan, bai Estatudun bai Estaturikideen nazionalismoak, jarrera nazionalistak oro har, oinarri gisa hiritarra hartzeri beharturik daude onargarriak izan daitezkeen; ethnosen sustraitutako XIX. mendeko nazionalismoak dagoeneko ez baitu lekurik, bai, ordea, demosean oinarritutakoak, eta, jakina, Estatuak eman dezake demosa, eta ez nazioak. Dena dela, II. Gerrate Mundialetik, noizdanik komunikazioak distantzien mugak irauli baititu, nazio zein herrietan jarritako mugak lausotu egin dira. Nazio zein herrietan sustatutako diskurtsoek iraganaren gero eta antz handiagoa dute.

Dirudenez, duela zenbait milioi urte, gizakia Afrikatik sorturik planeta osora barreiatu zen. Bizitzeko suertatu zaizkigun garai hauetan, non informazioak berehala lotzen gaituen milaka kilometro aparte bizi garenok, ematen du ezen mundua, eta beronekin gizakia, berriro bere osotasunera bueltatzera emana dela, herri, nazio,

estatu eta kontinenteen gaindi. Ikusmira holistikoa, ezinbestez, gero eta indartsuagoa bilakatzen ari dena, uztartzeko beharrea gaude Munduaren alde honetan, Europako alde honetan ere, Mundua eta Europa gureganatzeko. Europaren osatze prozesurako, bistan denez, nazioa eta herria ez dira izan erabilitako moldeak. Estaturen ordez herrien edo nazioen edo regionen Europa proposatzea zilegi da, baina holakorik proposatzen dutenek apenas izaten dute oihartzunik europar hiritarren artean –ikusirik ez daude europar Parlamentarako hauteskundeetako emaitzak, non europar herrien sustatzaileek 732 eserlekuatik dozena erdi baino ez baituten eskuratu, beraz, orotara ehuneko bat baino ez²¹–.

Bestetik, esan behar da alegiazko herrien Europak ez lukeela zerikusirik izanen azken aurreko berrogeita hamar urteetan ezagutu dugun Europako elkartzeko prozesuarekin. Estaturik gabeko herrien Europak ez du lekurik egin Estatudun herri eta nazio batzuen Europa honetan. Estatudun herri eta nazioek ez diote beren estatutasunari uko egingen. Litekeenago da egun Estatu gabeko nazio zenbait estatudunak izatera heltzea, Estatuak Europan desagertzea baino. Litekeenago da ere Estatudun nazioak eta herriak desagertu baino lehen Estaturik gabeko nazio eta herriak desagertzea, azken aurreko bi mendeetan Europan gertatu izan denez, non askozaz gehiago izan diren desagerturiko herri eta nazioak agerturiko estatuak baino.

Hala ere, horrekin ez dut esan nahi, ene aburuz, Europan Estatu-nazioak eredu izan behar duenik, baina ezta ere estaturik gabeko nazioak. Nahiago nuke Estatu europarra non eleanizdun euskaldunak europarrago bizi gintezkeen nazionaleririk gabe. Europan, azken 50 urteetan, saiakerak egiten ari dira partikularitatearen eta komunitatearen arteko harremana orekatzeko, ezen XVIII. mendean erditik II. Mundu Gerrara arte partikularitateari eman baitzitzaion arreta, europarron elkarren artekoa ahaztuz. Ez da dudarik europar komunitatearen alde asko egin dela oso denbora laburrean; hala eta guztiz ere, belaualdi gehiago beharko dira europar estatu-nazioen izaeradun Batasunari luzeragorako mugiarazteko. Horretarako, ez dirudi hautu desgokoa denik Batasunerako I-8 artikuluan harturiko ezaugarria: “in varietate concordia”, edo, Europako alde honetan –nafarreraz–, “diversitatean bat eginik” erran dezakeguna.

19. Konstituzioaren Solas-aitzinean erraiten da, besteak beste “ziurtasunean, ezen Europako herriak, beren nazio identitate eta historiari harro sentitzeari utzi gabe, deliberaturik daudela aspaldiko zatiketak gainditzeko eta, gero eta elkarri estuago loturik, elkarren arteko patua sortzeko. Bestaldetik, II. Zatiako Hitzzaurrean hauxe irakur daiteke: “(...) Batasunak elkarren arteko balio hauen zaintza eta sustapenera lagunduko du, betiere, Europako herrien kultura eta tradizioen ezberdintasuna eta Estaturikideen nazio identitatea errespetatuz”.
20. Egun, nazionalismoa, erarik gordinen plazaratzeko kirolez baliatzen da, ikusi besterik ez dago zer girotxo antolatzen den Eurokopa edo Olinpiaden karietara.
21. Bere konposiziorako hauteskundeak deituak zirenetik, alegia, 1979tik, direlako estaturik gabeko alderdi nazionalistek Europar Parlamentan eserlekuak %1 baino ez ohi dute lortu. Oraingoan ere, eite horretako hautagaitz bakan batzuek soilik erdietsi dute representazioa: bi europarlamentari Scottish National Party eta Galeusca izeneko hautagaitzarentzat, eta bana Plaid Cymru eta Herrien Europa koalizio izenekoarentzat.